



## GOZAMENA, GURE AIZKORARIK ZORROTZENA!

Kontzentrak, protokoloak, abesti ez-sexisten *playlist*-ak, watsapp mezu kateak, antortxak, kartelak eta pintadak, buruberoki beltzak, zapi moreak... Txis pun! Heldu dira jaiak. Badator eraso sexisten ofentsiba basatiaren garaia, baita gure erantzun feministak guztiak martxan jartzeko ere. Baino festak erasoak eta erantzunak baino gehiago dira. Festak gozatzeko espazioak dira. Go-za-tze-ko!

Ezin saihestu genezake “jaiak bai, borroka ere bai” leloa gogoratzea. Erritmo frenetikoan bizi gara, lanetik asanbladara, asanbladatik txosnara... eta garrantzitsuena ahazten zaigu: sistemaren eraldaketan parte-hartzeko orduan, gozatzea aintzat hartzea. Gozatzea herri libre eta bizigarriagoa eraikitzen. Borrokaz eta borrokan gozatzea. Gerran ere maitasun abestiak badirelako, dantza dezagun edo bestela hau ez da gure iraultza izango. Eta iraultzen ez badugu, ez delako gure dantza izango.

Denok gozatzeko, ezinbestekoa da, besteei gozatzen uztea eta jaiak, ekimenak eta plazak birpentsatzea. Bide horretan emakumeon\* gorputzen kontrako gerrarekin amaitu behar da ezinbestean. Bitartean, espazio seguruak sortzen jarraituko dugu. Espazio seguruez gain espazio gozagariak nahi ditugu emakumeok, gorputz ez hegemonikoen ahalduntzerako zubia delako plazera, autodefentsarako beste ate bat, alegia. Horrek indarkerien fokua zabaldu eta galdera berriak egitea eskatzen digu:

Adibidez, nork dauka gure jaietan, gozatzeko askatasun oso eta ukaezina? Nork dantza dezake nahi duen espazio guzia erabilita? Nork jantzi eta erantzi lezake arropa nahi duen bezala? Nork egin dezake txiza kalean; begirada, irri edo inolako irainez salbu? Nor joan daiteke bakarrik etxera askatasunet? Nor dago erosoa? Nork garbitzen ditu, etxe gehienetan, egun handirako behar dituzun konpartsak, peña edo koadrilako kamiseta eta leporako zapiak? Nork goza dezake bazkari batean hamaika aldi zaharrean? Nork sentitzen du bere burua ordezkatuta oholtzan? Nolakoak dira antolakuntza eta sormen prozesuak? Nolako espazio eta hiri/herri eredu sortzen ditugu? Galdera sorta hau zizka mizka baino ez dela kontuan hartuta, oraindik pentsa daiteke, gure herriko jaiak denontzat espazio gozagari direla?

Festak eduki sinbolikoa duten jendarte eta kultur adierazpenak dira, errealtitatearen adierazle kondentsatuak. Jaietan jendartean dauden gatazkak, zapalkuntzak eta diskriminazioak erreproduzitzen dira. Baino ez dezagun ahaztu ordena irauli eta disidentziarako baliatu ditzakegula ikuspegi eraldatzailea txertatzu gero.

Guztioan plazera erdigunean jartzeko denok parte-hartzeko aukera sentitu behar dugu: erabakietan, ikuskizunetan, jai batzordean edo barraren bi aldeetan. Oinarritzko ideia dela dirudien arren, gertu ditugu alardea, mutil dantza edo antzerakoetan emakumeon parte-hartzea mugatzen duten jarrerak eta erresistentziak. Eremu honetan hainbat aurrerapauso eman dira emakumeon ikusgarritasuna gehiago sustatuz. Baino aldaketa ez da kuantifikatu, kontatu ahal den zerbait bakarrik. Aldaketak kualitatiboa ere izan behar du integrala, muinekoa eta aldagai bakoitza zeharkatuko duena. Beraz, ikusezin eta naturalizatuta dauden jarrerak eta “nahi gabe” egiten diren kontuei arreta jartzea funtsezkoa da. Hortxe baitago batzuen eta besteen gozamenerako giltza, baita bestelako indarkeria gordinetako oinarria ere. Soilik gure jardunaren eta ekintzen jabe



bagara eskaini ahal izango ditugu guztiok gozatzeko moduko ikuskizun, kalejira, harreman, musika, otordu, txaranga, jolas zein dantzak.

Gozamenez egin ditzagun plazak, etxeak eta kaleak atseginago, bizigarriago, bihurtzeko baina, baita ahalduntzeko, jakintzak partekatzeko, aliatzeko, elkarrekin boteretzeko eta askeago izateko ere. Jarraitu dezagun erantzuten, saretzen, negoziatzen... eta gozatzen. Hauxe izango da gure arma: gozamena gure aizkorarik zorrotzena!

**EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**

**Euskal Herrian, 2017ko ekainaren 29an**



## ¡EL PLACER ES NUESTRO HACHA MÀS AFILADA!

Concentraciones, protocolos, playlist de canciones no sexistas, cadenas de mensajes por watsapp, antorchas, carteles y pintadas, capuchas negras, pañuelos morados... ¡Txis pum! Han llegado las fiestas. Llega la época de la ofensiva salvaje a las agresiones sexistas y de poner en marcha todas nuestras respuestas feministas. Pero las fiestas son más que agresiones y respuestas. Son espacios para disfrutar. ¡Disfrutar!

No podemos evitar recordar el lema “fiesta si, lucha también”. Vivimos en un ritmo frenético, del trabajo a la asamblea, de la asamblea a la txosna...y se nos olvida lo más importante: tomar en cuenta el disfrute a la hora de participar en la transformación del sistema. Disfrutar en la construcción de un pueblo libre y vivible. Disfrutar en la lucha y con la lucha. Porque en la guerra también hay canciones de amor, bailemos o esta no será nuestra revolución. Y si no lo revolucionamos, este no será nuestro baile.

Es imprescindible repensar las fiestas, los actos y las plazas y dejar disfrutar a las demás para que todas disfrutemos. En ese camino, necesariamente, debemos terminar con la guerra contra los cuerpos de las mujeres\*. Mientras tanto, seguiremos creando espacios de seguridad. Además de espacios de seguridad queremos espacios de disfrute porque el placer es el puente hacia el empoderamiento de los cuerpos no hegemónicos, es decir, otra puerta más para la autodefensa. Esto abre el foco de las violencias y nos requiere hacer nuevas preguntas:

Por ejemplo, ¿Quién tiene libertad total e innegable para disfrutar las fiestas? ¿Quién puede bailar haciendo uso de todo el espacio que quiera? ¿Quién puede ponerse la ropa o quitársela como quiera? ¿Quién puede orinar en la calle a salvo de cualquier mirada, risa o insulto? ¿Quién puede ir con total libertad solo a casa? ¿Quién está cómodo? ¿Quién limpia, en la mayoría de los hogares, los pañuelos y/o camisetas de las comparsas, peñas o cuadrillas para el día grande? ¿Quién puede disfrutar de una comida sin tener que levantarse infinidad de veces? ¿Quién se siente representado en el escenario? ¿Cómo son los procesos creativos y organizativos? ¿Qué tipo de espacios y modelos de pueblo/ciudad creamos? Teniendo en cuenta que este conjunto de preguntas no son más que los entremeses, ¿podemos todavía pensar que nuestras fiestas son espacios placenteros para todas?

Las fiestas son expresiones sociales y culturales con contenido simbólico, indicadores condensados de la realidad. En las fiestas se reproducen los conflictos, las discriminaciones y las opresiones que existen en la sociedad. Pero no olvidemos que introduciendo una perspectiva transformadora podríamos aprovecharlas para voltear el orden para la disidencia.

Para colocar el placer de todas en el centro, todas tenemos que sentir la opción de participar: en las decisiones, los espectáculos, las comisiones de fiestas o en los dos lados de la barra. Aunque parezca una idea muy básica, cerca tenemos actitudes y resistencias que limitan la participación de las mujeres\* como el alarde, las “mutil dantza” o semejantes. En este ámbito se han dado algunos avances impulsando la visibilidad de las mujeres, pero el cambio no es sólo cuantitativo, el cambio ha de ser



también cualitativo, integral, de raíz y debe atravesar todas las variables. Por lo tanto, es fundamental atender a las actitudes invisibles y naturalizadas y a las cuestiones que se hacen “sin querer”. Porque es ahí donde está la llave para el disfrute de unas y de otras y también los cimientos de otras crudas violencias. Únicamente si somos responsables de nuestras actitudes y procederes podremos ofrecer actuaciones, kalejiras, relaciones, música, comidas, txarangas, juegos y bailes dignas de ser disfrutadas por todas.

Hagamos las plazas con placer, para convertir las calles y casas más agradables, más vivibles, pero también para empoderarnos, compartir saberes, para aliarnos y para ser más libres. Sigamos respondiendo, haciendo red, negociando...y disfrutando. Esta será nuestra arma: *¡El placer es nuestro hacha más afilada!*

**EUSKAL HERRIKO BILGUNE FEMINISTA**

**El 29 de junio del 2017**